

Erref.- FMR / Legelari aholkularia

GAIA.- ERIZAIN LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA (EEZ), LAGUNTZA-TALDEAK ERATZEKO.

EGITATEAK.- Bizkaiko Iraupen Luzeko Zainketen Trantsizio Planaren jarduera-ildoan artean dago erreferentziazko eskualde-zentroak hedatzea Bizkaiko gizarte-zerbitzuen lau sektoreetan, barne harturik egoitza-unitate soziosanitarioak eta laguntza-talde espezializatuak. Orain, lau erizain-lanpostu bete nahi dira laguntza-talde espezializatueterako: bi, Birjinetxe erreferentziazko eskualde-zentroari atxikiak, eta beste bi, Leioa erreferentziazko eskualde-zentroari atxikiak.

Oinarri horiek erakunde honetan ordezkariak duten sindikatuekin negoziatu dira, otsailaren 3ko bileran.

Oinarriek, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen esparruan, eta aztertzen ari garen kasurako, Gizarte Segurantzaren Kontseilu Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren eskumenen esparruan sindikatuekin aurrez negoziatutako baldintzak eta betekizunak ere jasotzen eta hartzen dituzte, baina Erakunde honetatik aurreikusten diren berezitasunak txertatuta.

Bereziki, puntu honetan ohartarazten da Balorazio Batzordean sartu dela, prozesua hautatzeko organoa den neurrian, Iraupen Luzeko Zainketen Trantsizio Planaren koordinatzailea.

KONTUAK HARTZEKOAK.- Gai honetaz arduratzeko eskumena GUFEn Gobernu Batzordeari dagokio, GUFEn Estatutuak aldatzen dituen maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, sinatzen duenak Gobernu Batzordeari aurkezten dio, azter dezan, honako

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehenengoa: GUFEn zenbait lanpostu betetzeko lehiaketaren deialdia onartzea. Lanpostu horiek 1. eranskinean zerrendatzen dira.

Bigarrena: Deialdiaren oinarriak onestea eta erabaki honen 2. eranskin gisa jasotzea.



Hirugarrena: Erabaki hau oinarri osoekin batera argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta GUFEn webgunean.

Laugarrena: GUFeko gerente jaunari baimena ematea deialdi hau garatzeko beharrezkoak diren egintza guztiak gauzatzeko, dagokion bezala ebatzi arte.

Bosgarrena: Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko (2) epearen barruan, edo, bestela, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Batzorde honi, hilabeteko (1) epearen barruan.

Bilbon, 2023ko otsailaren 3an

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA


Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GERENTEA


Sin.: David Latxaga Ugartemendía